



BASES DE CONCESIÓN DE AYUDAS INDIVIDUALES DESTINADAS A PROPORCIONAR, MEDIANTE LA UTILIZACIÓN DE BONO-TAXI, UN MEDIO ALTERNATIVO DE TRANSPORTE ADAPTADO A PERSONAS AFECTADAS POR GRAVES DISCAPACIDADES DE MOVILIDAD.

BANAKAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA, MUGITZEKO DESGAITASUN LARRIAK DITUZTEN PERTSONEI EGOKITUTAKO GARRAIO ALTERNATIBOA ESKAINTZEKO, TAXI-BONUAZ BALIATUTA.

1.- FUNDAMENTACIÓN

El acceso al transporte adaptado es un instrumento esencial para que las personas afectadas por discapacidades graves puedan desarrollar una vida autónoma en las mismas condiciones que el resto de sus conciudadanos/as del municipio de Barañain.

Esta actuación se estructura formando parte del conjunto de medidas dirigidas desde las Administraciones para conseguir la incorporación social de las personas afectadas por discapacidades de movilidad. Y se concreta en la concesión de una ayuda económica que, será utilizada por las personas beneficiarias en sus desplazamientos personales pudiendo hacer uso del servicio de taxi.

2.- OBJETO Y DEFINICIÓN

El objeto de estas ayudas es posibilitar un medio de transporte alternativo a aquellas personas que por razón de graves dificultades de acceso no pueden hacer uso del transporte colectivo ordinario.

La finalidad de estas ayudas, es favorecer el desplazamiento a las personas vecinas de Barañain afectadas de dificultades de movilidad, mediante la utilización del servicio de taxi. Los desplazamientos alcanzarán el área interurbana del Transporte Público Comarcal, y el acceso a aquellos centros y servicios socio sanitarios y socio educativos que estén ubicados más allá de esa área, en un radio no superior a 20 kilómetros de Barañain.

Estas ayudas tendrán carácter finalista, debiendo destinarse únicamente al objeto por el que hayan sido concedidas, teniendo el tratamiento legal de subvención.

1.- OINARRIA

Desgaitasun arazo larriak dituzten pertsonentzat ezinbesteko bitartekoa da garraio egokitua, bizimodu autonomoa egin ahal izateko Barañaingo gainerako bizilagunen baldintza berberetan.

Administrazioetatik abian jarritako neurri sorta baten zati gisa egituratzen da jardunbide hau, mugitzeko desgaitasunak dituzten pertsonak gizarteratzea lortzearren. Era berean, diru-laguntza ematearekin gauzatzen da hori guztia, zeina erabiliko baitute onuradunek haien joan-etorrietarako, taxi zerbitzua erabiltzeko aukera izango dutelarik.

2.- XEDEA eta DEFINIZIOA

Laguntza hauen xedea da garraio alternatiboa eskaintzea mugitzeko desgaitasun larriak izaki ohiko garraio kolektiboa erabiltzerik ezin duten pertsonen.

Laguntza hauen helburua da mugikortasun arazoak dituzten Barañaingo bizilagunei joan-etorrietan laguntzea, taxi zerbitzua erabilita. Hortaz, joan-etorri horiek Eskualdeko Garraio Publikoaren hiriarteko eremua hartuko dute, eta eremu horretatik haratago dauden zentro eta zerbitzu soziosanitarioak eta soziohezitzaileak, betiere Barañaindik 20 kilometroko erradioa gainditu gabe.

Hemengo diru-laguntza hauek izaera finalista dute; beraz, diru-laguntza eman den xederako erabili beharko dira horiek.



3.- PERSONAS BENEFICIARIAS

3.1.- Podrán solicitar las prestaciones de este programa las personas que reúnan los siguientes requisitos:

- Estar empadronado/a en el municipio de Barañáin con una antelación mínima de 6 meses y residir efectivamente en el municipio de Barañáin desde el momento de la solicitud y mientras se perciba la ayuda.
- Contar con una discapacidad que le dificulte gravemente el acceso a transportes colectivos, debidamente acreditado en el certificado oficial de grado de discapacidad (7 o más puntos).
- No poseer carnet de conducir, o habiéndolo poseído no encontrarse en condiciones físicas para conducir derivado de la discapacidad (acreditando dicho hecho mediante certificado médico).
- No poseer vehículo propio adaptado para la conducción por persona con discapacidad motora, en el supuesto de solicitantes mayores de 18 años.
- Estar al corriente de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Barañáin, no obstante lo anterior se podrá conceder auxilios económicos a particulares que se hallen incurso en procedimientos de cobro por vía de apremio por deudas contraídas con el Ayuntamiento de Barañáin.
- Que los ingresos ponderados de la unidad familiar no superen los baremos que se detallan a continuación.

<u>Ingresos familiares brutos ponderados en nº de veces IPREM</u>	<u>Porcentaje de subvención sobre renta mensual</u>
--	--

Ingresos superiores a 3 IPREM	0%
Ingresos entre 2,6 y 3 IPREM	25%
Ingresos menores a 2,5 IPREM	50%

3.- PERTSONA ONURADUNAK

3.1.- Programa honetako prestazioak eska ditzakete segidako baldintzak betetzen dituzten pertsonak:

- Barañáin en erroldatuta izatea, gutxienez, 6 hilabete lehenagotik eta benetan Barañáin en bizitzea eskaera egiten den unetik eta laguntza jasotzen den bitartean.
- Desgaitasuna izatea, halako moduz non horrek biziki galaraziko baitio garraio kolektiboetan sartzea, betiere desgaitasun mailari buruzko agiri ofizialean egiaztatu bada (7 puntu edo gehiago).
- Gidatzeko baimenik ez izatea, edo, inoiz izanda ere, desgaitasunaren ondorioz gidatzeko moduko baldintza fisikorik ez izatea (inguruabar hori osasun-ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da).
- Mugimenduan desgaitasuna duten pertsonentzat egokitutako ibilgailu propioa ez izatea, 18 urtetik gorako eskatzaileen kasuetan.
- Eguneratuak izatea Barañaingo Udalarekiko tributu-obligazioak. Aurrekoaz gain, dena den, diru-laguntzak ematen ahal zaizkie Barañaingo Udalarekin izandako zorreatatik premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrei.
- Familia-unitatearen diru-sarrera haztatuak ez daitezela izan segidan zehazten diren baremoak baino handiagoak.

<u>Familiaren diru-sarrera gordinak, haztatuak, IPREM halako zenbateraino:</u>	<u>Hileko errentaren gaineko diru-laguntza portzentajea:</u>
---	---

Diru-sarrerak, IPREM halako 3 baino handiago	%0
Diru-sarrerak, IPREM halako 2,6 eta 3 artekoa	%25
Diru-sarrerak, IPREM halako 2,5 baino gutxiago	%50



Recursos económicos computables:

Para el cómputo de los recursos económicos de la unidad familiar en la que se integra la persona solicitante, se tendrá en cuenta la Renta y el Patrimonio de sus miembros.

Unidad familiar:

La persona solicitante o en su caso:

- La integrada por los cónyuges y los hijos/as menores de edad, con excepción de los que, con el consentimiento de los padres y madres, vivan independientes de éstos/as, y los hijos/as mayores de edad con incapacitación judicial que les sujete a patria potestad prorrogada o rehabilitada.
- La integrada por una pareja estable según la legislación específica y los hijos menores de edad, con excepción de los que, con el consentimiento de los padres y madres, vivan independientes de éstos/as, y los hijos/as mayores de edad.
- En los casos de separación legal, o cuando no existiera vínculo matrimonial o no existiera pareja estable o pareja conviviente, la formada por la madre o el padre y todos los hijos/as convivientes y que reúnan los requisitos a los que se refiere los apartados anteriores.
- También se consideraran como miembros de la unidad familiar los hijos/as con edades comprendidas entre los 18 y 25 años cuyos ingresos sean inferiores al SMI y no vivan independientes de sus padres y madres.

Por renta se entiende la totalidad de ingresos de la unidad familiar derivados de:

- Rendimientos del trabajo, incluidas pensiones y prestaciones de previsión social, cualquiera que sea su régimen, aunque figuren como rentas exentas en la Declaración del IRPF. De los ingresos brutos por rendimiento de trabajo por cuenta ajena se deducirán las cotizaciones satisfechas a la Seguridad Social y las cantidades abonadas por derechos pasivos, mutualidades de carácter obligatorio o similares.
- Rendimientos del capital mobiliario e inmobiliario.
- Rendimientos netos de las actividades empresariales o profesionales.
- Incrementos y disminuciones de patrimonio.
(en la Declaración del IRPF casillas 507+8841+529)

Baliabide ekonomiko konputagarriak:

Eskatzailearen familia-unitatearen baliabide ekonomikoak kalkulatzeko, kideen errenta eta ondarea hartuko dira kontuan.

Familia-unitatea:

Pertsona eskatzailea edo, hala balegokio:

- Ezkontideak eta seme-alaba adingabeak, gurasoen baimenarekin independente bizi direnak salbu, eta judizialki guraso-ahal luzatuari edo birgaituari lotuta dauden adin nagusiko seme-alaba ezgaituak osatutakoa.
- Berariazko legediaren arabera bikote egonkorak eta seme-alaba adingabeak, gurasoen baimenarekin independente bizi direnak salbu, eta adin nagusiko seme-alabak.
- Legezko banaketaren kasuetan, edo ezkontze-loturarik, bikote egonkorrik edo bizikidetzako bikoterik ez dagoen kasuetan, amak edo aitak eta aurreko idatzi-zatian adierazitako betekizunak betetzen dituzten seme-alaba bizikide guztiek osatutakoa.
- Familia-unitateko kide gisa sartzen ahalko dira ere 18 eta 25 urte bitarte izaki Lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten eta gurasoengandik independente bizi ez diren seme-alabak.

Errentatzat hartuko dira familia-unitatearen diru-sarrera guztiak, honako hauek eragindakoak:

- Lan-etekinak, gizarte-aurreikuspeneko pentsioak eta prestazioak barne hartuta, haien erregimena edozein izan eta PFEZaren aitortzearen errenta salbuetsi gisa agertzen badira ere. Besteen konturako lan-etekinaren diru-sarrera gordinetatik kenduko dira hala Gizarte Segurantzari ordaindutako kotizazioak nola eskubide pasiboengatik, derrigorrezko mutualitateengatik edo antzekoengatik ordaindutako zenbatekoak.
- Kapital higigarrien eta higiezinaren errendimenduak.
- Enpresa edo lanbide jardueren errendimendu garbiak.
- Ondarearen gehikuntzak eta gutxitzeak.
(Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, 507+8841+529 laukiak)



3.2- Situaciones excepcionales:

- a. Aquellas personas beneficiarias que requieran traslado diario vinculado a trabajo o estudio y/u otras necesidades excepcionales que se valorarán en su momento por las Técnicas del Servicio Social de Base, cuyas rentas propias anuales no superen 2 veces el IPREM, que no dispongan de coche propio adaptado, salvo lo establecido en el punto 3.2. del presente apartado y siendo incompatible con la utilización del transporte asistido, pero superen el nivel de ingresos, tendrán la consideración de situación excepcional.
- b. Cuando haya dos personas con discapacidad en la misma unidad familiar, que reúnan los requisitos para el acceso a la ayuda individual de Bono taxi, pero superen el nivel de ingresos, tendrán la consideración de situación excepcional.
- c. Acogimiento familiar: Cuando una unidad familiar tenga en acogimiento a un/a menor con discapacidad, determinado por decreto de abandono o desamparo, que reúna los requisitos para el acceso a la ayuda individual de bono taxi pero superen el nivel de ingresos, tendrán la consideración de situación excepcional.

En los supuestos excepcionales el máximo de subvención a conceder será del 25 %.

Estas situaciones excepcionales u otras que pudieran presentarse, se estudiarán de manera individual y previo informe-propuesta emitido por el Servicio Social de Base a Junta de Gobierno Local.

4.- PLAZO Y LUGAR DE PRESENTACION DE SOLICITUDES

El plazo de presentación de solicitudes será el establecido en el correspondiente anuncio por el que se haga público cada año la convocatoria de las ayudas, siempre que se mantenga la consignación presupuestaria a tal fin.

Se solicitarán en el Servicio Social de Base del Ayuntamiento de Barañáin.

Si la solicitud no reúne los requisitos exigidos en la convocatoria, se requerirá a la persona solicitante para

3.2- Salbuespenezko egoerak:

- a. Pertsona onuradun haiek zeintzuk egunero eramank izatea behar baitute (lanarengatik edo ikasketengatik eta/edo aparteko egoerengatik –behar denean, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko teknikariek baloratuko dute-), baldin eta beraien urteko errentek ez badute gainditzen 2 aldiz IPREM adierazlea, berea den ibilgailu egokiturik ez badute (atal honetako 3.2. puntuak ezarritakoa salbu, eta garraio lagundua erabiltzearekin bateraezina denean), diru-sarreraren maila gainditzea egoera berezizat hartuko da.
- b. Familia-unitate bereko bi kidek banakako taxi-bonuko laguntza jasotzeko betebeharrak betetzen badituzte, diru-sarreraren muga gainditzea egoera berezizat hartuko da.
- c. Norberarena ez den familian hartutakoak: Familia batek ezgaitasuna duen adingabe bat etxean hartua izanik (abandonu edo babesgabetasun dekretuak zehaztua) adingabe horrek taxi-bonuaren banakako laguntza jasotzeko baldintzak betetzen baditu, familiar diru-sarreraren maila gainditzea egoera berezizat hartuko da.

Balitzko salbuespenezko egoeretan, gehienez, emango den diru-laguntza %25 izango da.

Banan-banan aztertuko dira salbuespenezko egoera horiek, edo sor litezkeenak, eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak txosten-proposamena egingo dio alde aurretik Tokiko Gobernu Batzarrari.

4.- ESKABIDEAK NOIZ eta NON AURKEZTU

Eskaerak aurkezteko epea dagokion iragarkiak ezarriko du, zeinak urtero jakitera emango baitu diru-laguntzen deialdia, betiere xede horretarako dagoen aurrekontuko kontsignazioari eusten bazaio.

Barañaingo Udalaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan bideratu behar dira eskaerak.

Eskaerak ez baditu betetzen deialdian ezarritako betekizunak, eskatzaileari eskatuko zaio gehienez



que la subsane en el plazo máximo e improrrogable de diez días hábiles, indicándole que si no lo hiciese se le tendrá por desistida de su solicitud, previa resolución que será dictada en los términos previstos en la Ley del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

ere hamar eguneko epe luzaezinean zuzen dezala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraiki.

5.- GESTIÓN DE LAS AYUDAS

Se gestionarán por el Ayuntamiento de Barañáin a través del Área de Servicios Sociales, de acuerdo con las cláusulas procedimentales y de financiación establecidas por este Ayuntamiento.

5.- DIRU-LAGUNTZEN KUDEAKETA

Barañaingo Udalak kudeatuko ditu diru-laguntzak, Gizarte Zerbitzuetako arloaren bidez, Udal honek finkatuta dituen prozedura eta finantzazio klausulei jarraiki.

La gestión económica se efectuará a través de subvenciones individuales a los usuarios del bono-taxi, de acuerdo a los baremos establecidos al efecto y previa presentación del justificante del gasto efectuado.

Kudeaketa ekonomikoa taxi-bonuaren erabiltzaileei banakako diru-laguntzak emanez gauzatuko da, xede horretarako ezarri diren baremoekin bat eta eginiko gastuaren ordainagiria aurkeztu eta gero.

6.- DOCUMENTACIÓN

Para la tramitación de las ayudas se aportará la siguiente documentación:

6.- AGIRIAK

Diru-laguntzak bideratzeko honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Solicitud según modelo oficial.
- Fotocopia D.N.I./Pasaporte o Permiso de Trabajo / residencia del solicitante, y en su caso de la representación de quien actúa en su nombre.
- Fotocopia del grado de discapacidad, donde conste que su discapacidad le dificulta gravemente para la utilización de transportes colectivos.
- Fotocopia completa de la última Declaración de la Renta de todos/as los/las miembros de la unidad familiar. En caso de no estar obligado a realizarla, certificación de Hacienda de estar exento/a y Justificantes de los ingresos de la unidad familiar, referidos al año anterior al de la solicitud.
- En su caso, Certificado de la empresa o centro de enseñanza en el que conste la situación de la persona interesada así como la inexistencia de transporte adaptado.
- Factura nominal del gasto efectuado en la que se especifique lugar de salida y de llegada de la carrera.
- Cualquier otra documentación que a juicio del Servicio Social de Base se considere de interés para el acceso al programa.

- Eskabidea, eredu ofizialarekin bat datorrena.
- Eskatzailearen NAN/Pasaportearen edo Lan/bizilekuaren fotokopia, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeko agiriak.
- Desgaitasun mailaren fotokopia, non jasoko baita desgaitasunak larriki zailtzen diola garraio kolektiboak erabiltzea.
- Familia-unitateko kide guztien azken Errenta Aitorpen osoaren fotokopia. Aitorpena egiteko betebeharrak ez dutenen kasuan, Ogasunaren egiaztagiria non jasoko baita salbuetsita daudela eta familia-unitatearen diru-sarreraren Egiaztagiriak, eskaera egin aurreko urteari dagozkionak.
- Hala badagokio, enpresaren edo ikastetxearen egiaztagiria non jasoko baita interesdunaren egoera, bai eta garraio egokiturik ez dagoela ere.
- Egindako gastuaren faktura izenduna, non agertuko baita bidaiaren hasiera eta amaiera tokiak.
- Beste edozein agiri, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak interesduntzat jotzen badu programan sartzeko.



- h. Solicitud de Abono por Transferencia.
 - i. Declaración responsable de no poseer carnet de conducir (en modelo de solicitud).
 - j. Declaración responsable de no poseer vehículo propio adaptado para la conducción por persona con discapacidad motora, en el supuesto de solicitantes mayores de 18 años (en modelo de solicitud).
 - k. Declaración responsable de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias en el Ayuntamiento de Barañáin (en modelo de solicitud).
 - l. Declaración responsable en la que se haga constar que quien solicita cumple los requisitos exigidos en la convocatoria (en modelo de solicitud).
 - m. El Ayuntamiento procederá de oficio a comprobar que las personas solicitantes se encuentran empadronadas en Barañáin y al corriente de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento, suponiendo la presentación de la solicitud, autorización suficiente para que el Ayuntamiento efectúe esta comprobación.
 - n. Otros documentos que justifiquen las diferentes situaciones excepcionales.
- h. Transferentzia bidezko ordainketa egiteko eskaera.
 - i. Erantzukizunpeko adierazpena (eskabide ereduan), non jasoko baita gidabaimenik ez duela.
 - j. Hala balegokio, 18 urtez goitiko eskatzaileek, erantzukizunpeko adierazpena (eskabide ereduan) non jasoko baita mugimenduan desgaitasuna duten pertsonentzat egokitutako ibilgailu propiorik ez izatea.
 - k. Erantzukizunpeko adierazpena, non jasoko baita Barañaingo Udalarekiko dituen zerga-betebeharrak egunean dituela (eskabide ereduan).
 - l. Erantzukizunpeko adierazpena, non jasoko baita eskatzaileak betetzen dituela deialdian eskatzen diren betebeharrak (eskabide ereduan).
 - m. Udalak ofizioz egiaztatuko du eskatzaileak Barañáin erroldatuta daudela, eta Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean dituztela ere bai. Eskabidea aurkezteak baimen nahikoa ematen dio Barañaingo Udalari aipatu egiaztatzea egiteko.
 - n. Beste agiri batzuk, zeintzuk frogatuko baitituzte salbuesenezko beste egoera batzuk.

7.- CONCESIÓN DE AYUDAS

1.- Las personas interesadas en la obtención de las ayudas formalizarán su petición en impreso normalizado, en el Servicio Social de Base del Ayuntamiento. Posteriormente se procederá a la valoración tanto de la necesidad, como del cumplimiento de los requisitos de acceso al programa.

2.- La solicitud de las mismas tendrá carácter anual, quedando condicionada su concesión y posibles prórrogas a la normativa aplicable en cada momento, a las disponibilidades presupuestarias del Ayuntamiento y al ejercicio económico en que se solicite.

Así mismo el Ayuntamiento de Barañáin, cuando lo estime oportuno, procederá durante el año de vigencia de la subvención concedida, a revisar las

7.- DIRU-LAGUNTZEN EMAKIDA

1.- Diru-laguntzak eskuratu nahi dituzten interesdun haiek inprimaki normalizatuan gauzatu behar dute eskaera, Udalaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan. Ondoren balorazioa egingen da, bai beharrarena baita programan sartzeko betekizunen betetze mailarena ere.

2.- Urtean behin eskatu beharko dira, eta unean uneko araudi aplikagarriaren arabera emanen edo luzatuko –egokia balitz– dira; era berean, Udalaren aurrekontuen erabilgarritasunaren eta eskatzen den ekitaldi ekonomikoaren mende ere egonen dira.

Halaber, Barañaingo Udalak, egoki joz gero, emandako diru-laguntzen onuragarrien inguruabar sozial eta familiarak aztertuko ditu



circunstancias sociales y familiares de los beneficiarios que dieron lugar a la concesión de la misma, y a incrementar o disminuir su cuantía, si estas circunstancias se hubieran modificado.

3.-La concesión de las ayudas se realizará previo estudio y valoración de la documentación aportada por el/la solicitante y previa presentación, con una periodicidad trimestral, de las facturas del gasto efectuado.

Los servicios técnicos del área correspondiente estudiarán los expedientes y propondrán, previa fiscalización del gasto por la Intervención del Ayuntamiento, el otorgamiento y abono de las ayudas mediante resolución de Alcaldía. En comisión informativa se presentará resumen de las solicitudes tramitadas.

En este sentido y al objeto de dar por cumplimentado el trámite de fiscalización del gasto por Intervención, deberá formalizarse por el área correspondiente un impreso normalizado elaborado al efecto.

El pago de las ayudas se realizará a la persona solicitante, a través del número de cuenta que se indique en el momento de formalizar la solicitud. Las personas beneficiarias de la subvención deberán encontrarse, con anterioridad al cobro de la misma, al corriente de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Barañáin. En caso contrario el Ayuntamiento de Barañáin podrá acordar la compensación de deudas.

4.- El Ayuntamiento de Barañáin efectuará como estime procedente, control y evaluación de la marcha del programa, al objeto de mejorar la calidad del mismo y velar por su correcta utilización.

diru-laguntzaren indarraldian zehar, eta diru-laguntza handitu edo txikitzeko aukera izanen du inguruabarrak aldatu baldin badira.

3.- Laguntzak eman aurretik, eskatzaileak emandako dokumentazioa aztertu eta baloratuko da; era berean, egindako gastuen fakturak aurkeztu beharko dira, hiru hiletik behin, laguntza jaso aurretik.

Dagokion arloko zerbitzu teknikoek espedienteak aztertu eta, Udaleko Kontu-hartzaitzak gastua fiskalizatu eta gero, laguntzak ematea eta ordaintzea proposatuko dute Alkatearen ebazpenaren bidez. Tramitatutako eskaeren laburpena aurkeztuko da informazio batzorde batean.

Zentzu horretan, eta kontu-hartzaileak egindako gastuaren fiskalizazioa buruztat emate aldera, dagokion arloak horretarako egindako inprimaki normalizatu bat formalizatu beharko du.

Eskatu duen pertsonari ordainduko zaizkio laguntzak, eskaera egiteko unean emandako kontu-zenbakiaren bitartez. Diru-laguntzaren onuradunek, hura kobratu aurretik, Barañaingo Udalarekin dituzten zerga-betebeharrak egunean dauzkatela egiaztatu beharko dute. Bestela, Barañaingo Udalak zorren konpentsazioa adosteko aukera izanen du.

4.- Barañaingo Udalak programa nola gauzatzen ari den kontrolatu eta ebaluatuko du egoki jotzen duen bidea erabiliz, haren kalitatea hobetu eta erabilera zuzena egiten dela zaintzeko.

8.- IMPORTE. COMPATIBILIDAD E INCOMPATIBILIDAD DE LA AYUDA

8.1.- Las cuantías de las ayudas se actualizarán de acuerdo con las previsiones técnicas y económicas reflejadas en los presupuestos municipales que se vayan aprobando, y tendrán un límite máximo por beneficiario-año de 200,00 euros. En situaciones de carácter excepcional y previo estudio y valoración del Servicio Social de Base y Comisión de Servicios

8.- ZENBATEKOA. DIRU-LAGUNTZAREN BATERAGARRITASUNA eta BATERAEZINTASUNA.

8.1.- Urtez urte onetsitako udal aurrekontuetan jasotzen diren aurreikuspen tekniko eta ekonomikoekin bat eguneratuko dira laguntzen zenbatekoak, eta gehieneko muga bat izanen dute: 200,00 euro onuradun eta urte bakoitzeko. Salbuespenezko egoeretan eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Gizarte Zerbitzuak, Berdintasuna,



Sociales, Igualdad, Comunicación Intercultural y Personas Mayores, se podrá rebasar la cantidad señalada anteriormente, por decisión del órgano competente.

8.2.- El disfrute de esta ayuda podrá ser objeto de denegación por incumplimiento de los requisitos señalados, y/o de suspensión al comprobar la administración en sus controles habituales que existe incumplimiento de alguno de los requisitos en el momento del control así como en supuestos de actuaciones fraudulentas u ocultación de datos.

8.3.- La subvención de esta convocatoria, será compatible con la percepción de otras subvenciones para la misma finalidad procedentes de otras administraciones o entidades. En ningún caso el importe de la subvención podrá ser de tal cuantía que supere el coste de la actividad subvencionada.

8.4.- El disfrute de esta ayuda será incompatible con ayudas económicas y/o exenciones fiscales para adquisición de vehículo automóvil por el período vigente en la Ley de Impuestos Especiales, para personas con discapacidad mayores de 19 años y con discapacidad no excluyente para la obtención del carnet de conducir.

9.- CAUSAS DE EXTINCIÓN

- Pérdida de alguna de las condiciones que dieron lugar a su concesión.
- Modificación de las condiciones de acceso al programa.
- Fallecimiento
- Cualquier otra causa que se considere motivo justificado para la pérdida de la condición de usuario/a.

10.- NORMAS GENERALES DE UTILIZACIÓN DEL BONO-TAXI

- El uso de taxi subvencionado es de carácter personal e intransferible y sus beneficiarios/as tienen la obligación de respetar las normas generales establecidas para dicho servicio

Kulturarteko Komunikazioa eta Adinekoentzako Batzordeak aztertu eta baloratu eta gero, arestian adierazitako zenbatekoa gainditzen ahalko da, eskumena duen organoak hala erabakita.

8.2.- Laguntza ukatzen ahalko da adierazitako baldintzak bete ezean, eta/edo eteten ahalko da administrazioak bere ohiko kontroletan egiaztatzen badu kontrola egiteko unean baldintzaren bat ez dela betetzen, edota iruzurrak egiten edo datuak ezkututzen badira.

8.3.- Deialdi honetako diru-laguntzak bateragarriak izanen dira beste administrazio edo entitate batzuek xede bererako eskaintzen dituzten diru-laguntzak hartzearekin. Diru-laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere diru-laguntzaren xedea den jardueraren kostua baino handiagoa izanen.

8.4.- Laguntza hori eskuratzea bateraezina izanen da ibilgailu bat erosteko ematen diren laguntza ekonomikoekin eta/edo zerga-salbuespenekin Zerga Berezien Legean ageri den indarraldian, desgaitasuna duten 19 urtetik gorako pertsonentzat eta gidabaimena lortzea galarazten ez dioten desgaitasuna izanez gero.

9.- DIRU-LAGUNTZA GALTZEKO ARRAZOIAK

- Emateko betetzen ziren baldintzetako bat ez betetzea.
- Programan sartzeko baldintzak aldatzea.
- Heriotza.
- Beste edozein arrazoi, zergati justifikatutzat jotzen bada erabiltzaile-izaera galtzeko.

10.- TAXI-BONUA ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK

- Taxia diruz lagunduta erabiltzeak izaera pertsonal eta besterenezina du, eta onuradunek derrigorrez errespetatu behar dituzte zerbitzu publiko horretarako



público.

ezarritako arau orokorrak.

2. Las subvenciones se concederán por períodos trimestrales, previa presentación de factura del gasto efectuado.
 3. La utilización de los taxis adaptados, mediante taxi subvencionado da derecho a desplazamientos urbanos e interurbanos (Comarca de Pamplona). En situaciones puntuales, y previo estudio y valoración del Servicio Social de Base, y Comisión de Servicios Sociales, Igualdad, Comunicación Intercultural y Personas Mayores, se podrá hacer uso del Programa de Taxi subvencionado para otro tipo de desplazamiento, por decisión del órgano competente.
 4. Cualquier anomalía observada por la Administración Municipal en la utilización del taxi subvencionado podrá ser objeto de investigación por parte de dicha entidad.
 5. La utilización fraudulenta del programa supondrá la retirada inmediata de la ayuda.
2. Diru-laguntzak hiru hilean behin emanen dira, egindako gastuaren fakturak aurretik aurkeztu eta gero.
 3. Diruz lagundutako taxiaren bidez, hiri eta hiriarteko joan-etorriak (Iruñerrian) egiten ahal dira egokitutako taxiak erabiliz. Unean uneko egoeretan, eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Gizarte Zerbitzuak, Berdintasuna, Kulturarteko Komunikazioa eta Adinekoentzako Batzordeak aztertu eta baloratu eta gero, bestelako joan-etorriren bat ere egiten ahalko da diruz lagundutako taxiaren programan, eskumena duen organo batek hala erabakita.
 4. Udal Administrazioak edozein anomalia antzemanen gero diruz lagundutako taxiaren erabileran, haren gaineko ikerketa egiten ahalko du.
 5. Programa iruzurrez erabiliz gero, berehalakoan kenduko da laguntza.

11.- VIGENCIA DEL PROGRAMA Y PRESUPUESTO

Estas bases regirán mientras no sean modificadas o derogadas por el órgano competente, de acuerdo con el procedimiento legalmente establecido. Anualmente el Ayuntamiento realizará de oficio la trasposición de la tabla económica de referencia según los datos del IPREM, con la finalidad de indicar los datos económicos oportunos.

Anualmente Alcaldía u órgano en quien delegue, adoptará el acuerdo oportuno mediante el que se establezca el presupuesto anual y el límite máximo a subvencionar por beneficiario/año.

La partida presupuestaria asignada es 41 23111 48000. Agotada la partida presupuestaria el Ayuntamiento no estará obligado a dotar de más fondos a este programa ni será causa para obligarle a abonar el gasto correspondiente cuando no haya presupuesto.

11.- PROGRAMAREN IRAUNALDIA eta AURREKONTUA

Oinarri horiek aginduko dute eskumena duen organoak aldatzen edo indargabetzen ez dituen bitartean, legearekin bat ezarritako prozeduraren arabera, Udalak erreferentziako taula ekonomikoa ofizioz aldatuko du urtero IPREM datuen arabera, datu ekonomiko egokiak adierazteko xedez.

Urtero, alkateak edo hark esku emandako organoak egokia den akordioa onetsiko du, urteko aurrekontua eta onuradun/urte bakoitzeko gehienez emanen den diru-laguntza zehaztuta.

Horretarako esleitutako aurrekontu-partida 41 23111 48000 da. Aurrekontu-partida agortuta, Udala ez da behartuta egonen programa honetan diru gehiago sartzera, eta ezin izanen da Udala dagokion gastua ordaintzera behartu aurrekonturik izan ezean.



12.-CONTENIDO DE LA RELACIÓN JURÍDICA BENEFICIARIO-ADMINISTRACIÓN CONCEDENTE, CONSECUENCIA DE LA SUBVENCIÓN.

12.- DIRU-LAGUNTZAREN ONDORIOZKO HARREMAN JURIDIKOAREN EDUKIA, ONURADUNAREN eta ADMINISTRAZIO EMAILEAREN ARTEAN.

A- OBLIGACIONES DE LA PERSONA BENEFICIARIA.

Son obligaciones del beneficiario/a de la subvención:

- Justificar ante el órgano concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones establecidas.
- Someterse a las actuaciones de comprobación, a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, aportando cuanta información les sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores que no obre en los archivos municipales.
- Comunicar a los Servicios Sociales Municipales las modificaciones que se produzcan en relación a la utilización del Bono-Taxi y cualquier cambio en las condiciones que dieron origen a la concesión de la ayuda y, en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones incompatibles dará lugar a la modificación de la resolución de la concesión.

B- REINTEGRO DE LAS CANTIDADES PERCIBIDAS.

La persona beneficiaria procederá el reintegro total de la cantidad percibida y la exigencia del interés de demora desde el momento del pago de la subvención en los siguientes supuestos:

- Incumplimiento de la finalidad para la que la subvención fue concedida.
- Obtención de la subvención sin reunir las condiciones requeridas para ello por causas imputables al beneficiario.
- Incumplimiento de la obligación de justificar el destino de los fondos percibidos.

A. ONURADUNAREN BETEBEHARRAK.

Honako hauek dira diru-laguntza jaso duen onuradunaren betebeharrak:

- Justifikatzea organo emailearen aurrean ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzen direla.
- Men egitea organo emaileak egin beharreko egiaztapen-lanei, baita kontrol organo eskudunek egin litzaketen finantza-egiaztapen eta -kontrol guztiei ere, arestian aipatutako jarduketetan eskatutako informazio guztia eman ez badago.
- Komunikatzea Udaleko Gizarte Zerbitzuei taxi-bonuaren erabileraren gainean gertatzen diren aldaketa guztiak, baita laguntza emateko arrazoi izan ziren baldintzen edozein aldaketa ere; halaber, laguntzen emakidaren ebazpena aldatu eginen da bateraezinak diren diru-laguntzak lortuz gero.

B. JASOTAKO DIRUA ITZULARAZTEA.

Ondoren aipatzen diren kasuetan itzuliko du pertsona onuradunak jaso duen zenbateko guztia, baita diru-laguntza ordaindu den unetik sortutako berandutza-interesak ere:

- Diru-laguntzak ez badu bete emateko orduan aurreikusitako xedea.
- Diru-laguntza eskuratu badu eskatutako baldintzak bete gabe, betiere onuradunari egozteko moduko arrazoiak badira.
- Jaso diren funtsak zertan erabili diren justifikatzeko betebeharra bete ez izana.
- Aldi berean diru-laguntza gehiago lortu



- Concurrencia de subvenciones, salvo compatibilidad de las mismas.
- Modificación o incumplimiento de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión.
- Obstrucción o negativa en la obligación de sometimiento a las actuaciones de comprobación citadas en la presente base.

izana; salbuespena litzateke horiek bateragarriak izatea.

- Diru-laguntza emateko baldintzak aldatzen badira edo horiek betetzen ez badira.
- Oinarri honetan aipatzen diren egiaztapen-lanei oztupoak jarri edo gauzatzeari uko egin izana.

Procederá al reintegro parcial si a lo largo del ejercicio se modificaran las condiciones por las cuales se ha concedido la ayuda y no se haya comunicado al Servicio Social de Base las modificaciones de su situación socio-económica que impliquen una modificación en la cuantía de la ayuda percibida.

Jasotakoaren zati bat itzuliko du baldin eta ekitaldian zehar aldatzen badira laguntza ematearen arrazoia izan ziren baldintzak eta ez badio Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari jakinarazi bere egoera sozio-ekonomikoa aldatu dela, horrek jasotako laguntzan aldaketa bat eraginez gero.

La resolución del reintegro de la subvención será adoptada por el órgano concedente, previa instrucción de expediente con arreglo a la legislación general aplicable.

Diru-laguntza itzultzeko ebazpena organo emaileak egingen du, behin espedientea bideratu eta gero, eta betiere aplikagarriak diren lege orokorrekin bat.

No obstante lo anterior, el Ayuntamiento podrá de oficio proceder a saldar las deudas pendientes de cobro de las personas beneficiarias de las subvenciones, mediante compensación de dichas subvenciones con las cantidades adeudadas.

Aurrekoa gorabehera, Udalak ofizioz kitatzen ahalko ditu diru-laguntzen onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak; horretarako, diru-laguntza horiek zor dituzten kopuruekin konpentsatuko dira.

Si como consecuencia de las funciones de control o de inspección, se dedujesen indicios de la incorrecta obtención, disfrute o destino de la subvención o ayuda percibida, los agentes encargados de su realización podrán acordar la retención de las facturas, documentos equivalentes o sustitutivos y de cualquier otro documento relativo a las operaciones en las que tales indicios se manifesten.

Kontrol- edo ikuskatze-lanen ondorioz zantzuak antzeman eta ondorioztatzen bada jaso den diru-laguntza modu bidegabean lortu edo oker erabiltzen ari dela, edo behar ez den helbururako erabiltzen ari dela, kontrol horiek egiten dituzten agenteek erabakitzen ahalko dute fakturak edo horien agiri baliokide edo ordezkioak atxikitzea, bai eta aztarna horiek agerian uzten dituen beste edozein agiri ere.

C.- INFRACCIONES Y SANCIONES.

C.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK.

Constituyen infracciones administrativas en materia de subvenciones y ayudas públicas las siguientes conductas, cuando en ellas intervenga dolo, culpa o simplemente negligencia:

Ondoko portaera hauek administrazio arloko arau-haustek dira diru-laguntza publikoen esparruan, baldin eta horietan dolu, erru edo, besterik gabe, axolagabekeria badago:

- La obtención de una ayuda o subvención falseando las condiciones requeridas para su concesión y ocultando las que la hubiesen impedido o limitado.

- Diru-laguntza edo laguntza bat eskuratzea faltsutuz hura hartzeko bete behar diren baldintzak, edo ezkutatzuz hura eragotzi edo murriztuko zuten baldintzak.



- La no aplicación de las cantidades recibidas a los fines para los que la subvención fue concedida, siempre que no se haya procedido a su devolución sin previo requerimiento.
- El incumplimiento por razones imputables al beneficiario, de las obligaciones asumidas como consecuencia de la concesión de la subvención.
- La falta de justificación del empleo dado a los fondos recibidos.
- Jasotako zenbatekoak ez aplikatzea ematean aurreikusten ziren xedek betetzeko, baldin eta zenbatekoak ez badira itzuli aurretik eskatu behar izan gabe.
- Diru-laguntza jasotzeagatik onartzen diren betebeharrak ez betetzea, onuradunari egozteko moduko arrazoiengatik.
- Ez justifikatzea jasotako funtsak zertan erabili diren.

La imposición de las sanciones se efectuará mediante expediente administrativo en el que, en todo caso, se dará audiencia a la persona interesada interesado antes de dictarse el acuerdo correspondiente. Este expediente será tramitado conforme a lo dispuesto en la Ley de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Administrazio-espeditentea zabalduko da zehapenak ezartzeko, eta, betiere, interesdunei entzunaldia eskainiko zaie dagokion erabakia hartu aurretik. Espeditentea, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak ezarritakoarekin bat tramitatuko da.

D.- NOTIFICACIÓN A LAS PERSONAS INTERESADAS Y RECURSOS.

D.- INTERESDUNEI JAKINARAZTEA eta ERREKURTSOAK.

La notificación a los interesados de las resoluciones y actos administrativos que afecten a sus derechos e intereses, se efectuará de conformidad con lo establecido en los artículos 40 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento administrativo común de las Administraciones Públicas.

Haien eskubideak eta interesak ukitzen dituzten ebazpenen eta administrazio-egintzen berri emanen zaie interesdunei, urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. eta ondorengo artikuluek ezarritakoarekin bat.

Contra estas bases y las resoluciones administrativas que se adopten en ejecución de las mismas podrán interponerse, potestativamente los siguientes recursos:

Oinarri hauen eta bertan ezarritakoa betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka, ondoko errekurtsu hauetako bat jartzen ahalko da, aukeran:

- Recursos de Reposición ante el órgano municipal autor del acto administrativo en el plazo de un mes a partir del día siguiente de la notificación o, en su caso, publicación del acto que se recurra.
- Recurso de Alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra en el plazo del mes siguiente a la notificación o publicación del acto que se recurra.
- Recursos Contencioso Administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia de Navarra en el plazo de dos meses. Este plazo se computará a partir del día siguiente a la notificación o publicación del acto que se recurra.
- Berraztertze errekurtsua, administrazio-egintzaren egile den organoari zuzendua, hilabeteko epean errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aurrera.
- Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta handik aurrera.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da zenbatzen.



E- PROTECCIÓN DE DATOS.

A tenor de lo establecido en la Ley Orgánica de 13 de diciembre de 1999, de protección de datos de carácter personal, le informamos que los datos que se recaban para solicitar la prestación de ayudas de utilización de Bono-taxi, van a ser incorporados a los archivos del Servicio Social de Base. Así mismo, le informamos de su derecho de acceso, rectificación, cancelación y oposición que podrá ejercitar dirigiéndose al Registro General del Ayuntamiento (Pza. Consistorial, s/n).

Por otro lado, supondrá la autorización al Ayuntamiento de Barañáin para que los datos de carácter personal, económicos y sociales que se integren en ficheros automatizados, puedan ser utilizados para otros fines tales como la producción de estadísticas o la investigación científica, en los términos previstos por la normativa vigente en materia de protección de datos de carácter personal.

La presentación de solicitud supone autorización suficiente para que el Ayuntamiento de Barañáin proceda a las comprobaciones de oficio necesarias para la concesión de la subvención.

E- DATUEN BABESA.

Datu pertsonalak babesteari buruzko Lege Organikoan -1999ko abenduaren 13koa- ezarritakoarekin bat, aditzera ematen dizugu taxi-bonua erabiltzeko laguntzak eskatzean biltzen diren datuak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren artxibategietan sartuko direla. Halaber, jakitera ematen dizugu baduzula datu horiek eskuratu, aldatu, baliogabetu eta horien tratamenduaren kontra egiteko eskubidea. Halako eskubidea gauzatzeko, Erregistro Orokorrera (Udaletxe plaza, zk.g.) jo dezakezu.

Bestalde, baimena ematen zaio Barañaingo Udalari datu pertsonalak, ekonomikoak eta sozialak fitxategi automatizatu batean sartzeko, eta horiek erabiltzeko bestelako helburu batzuetarako, hala nola estatistikak egiteko edo ikerketa zientifikoa egiteko, betiere datu pertsonalen babesaren arloan indarreko araudiak aurreikusitako baldintzekin bat.

Eskaera aurkeztea baimen nahikoa da Barañaingo Udalak ofizioz egin ditzan diru-laguntza emateko behar diren egiaztapenak.

Barañáin, 26 de abril de 2017./ Barañain, 2017ko apirilaren 26a.

SERVICIO SOCIAL DE BASE/ OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA